



**TELESFORO MONZON**  
**(1904-1981)**

Egilea:

**KOLDO IZAGIRRE**

## BERGARATIK TOLOSARA MADRIL BARRENA

Telesforo Monzon eta Ortiz de Urruela jauna Olaso etxean jaio zen, urte luzetan zarraturik ezagutuko zen Bergarako Elizondoko jauregi handian: «Ez da Bergara, berez, herri alai eta pinpirin horietakoa. Harri beltzez eginikako herri dotore bezain goibela, laino ta ketan duzu noiznahi, bere zulo ilunean jarrita.» Ulergarria da Bergarari herri triste eta ilunaren titulua ematea, hitz horiek idazterakoan Monzon gerraondoko etsipenetik eta Donibane-Lohizune bezalako leku xarmangarritik ari zela baldin badakigu. Eta lehen ikusi batean harrigarria badirudi ere, aitoren horrek indartu besterik ez du egiten bere bergarartasuna: «Bergarak ez du Euskal Herriko beste herriein ere zerikusirik. Ez gara beharbada besteak baino hobeak izango. Berezi ta guretarragoak bai ordea. Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugaren gain zankalatraba jarrita, ez baikintuzke inork ez baten ez bestearen semetzat hartuko. Eliza dotore, antzinako kale estu ta jauregi zahar haien itzalean

zenbait ola berri ere sortu direla, bergararren elkarganako anaigoak ez du arlotekeria usainik. Sorterriari dakarkiogun maitasunak biltzen bide gaitu elkarrekin.» Bergarartasun demokratiko hau bere ibilbide politiko-kulturalaren isla dela esan liteke, herri xehearenganako, hizkuntzarenganako



Telesforo Monzon, 1904-1981

eta naturarekiko beti izan zuen jaiduraren gauzatze partikularra. Telesforo Monzon «jauntxo» izateko sortua zen jatorriz eta jabegoz, baina bere bizitza eta bere jardun publikoa urrezko patu horretatik gero eta urruntze handiago bat izan zen.

2



Beti eduki zuen begiramen berezi bat euskal kazetaritzagana

Zuzenbide-ikasketak egin zituen Madrilén, eta beharbada han hasi zen, sorlekutik urrun, beste euskaldun askori gertatu moduan, bergarartasuna maila zabalago batean sentitzen, Euskal Herria identifikazio osoko gunetzat hartzen. Han ekin zion behintzat euskal aditzean sakontzeari. Karrera amaiturik, Tolosa ondoko Urkizu mendi-auzora jo zuen, etxean eta karrikan jasotakoa eta ikasle-gelan buruz ikasitakoa trinko praktikatzeko. Handik hurbil eraikiko zen urte gutxiren buruan Lizardiri eskainitako monumentua, poetari dagokionez Dama-Iturri izeneko erreka inguruetan. Jakina da poetak Mutitegi aldera jotzen zuela maiz, han hartzen zuela arnas poemagintzarako; itxura denez tertulia ederrik egiten zuten Urkizun Lizardik eta Monzonek ez ezik, Tolosan eta inguruan bizi ziren beste zenbait idazlek eta politikariek ere: Doroteo Ziaurritz, Tolosako alkatea izango zena, Antonio M.<sup>a</sup> Labayen, Aitzol, Emeterio Arrese, Orixe bera...

Bergara: «Harri beltzez  
eginikako herri dotorea  
bezain tristea». Argazkian  
seminarioa



1930ean EAJn sartu zen, eta handik urte batera, Espainian Errepublika ezartzearekin batera, Bergarako udaleko zinegotzi izendatu zuten. Berehala nabarmendu zen hiztun dotore eta zorrotz bezala, eta ezinbestekoa bilakatu zen alderdiaren mitinetan. Erdaraz bezain euskaraz trebe eta zalu, Hego Euskal Herri osoan barrena ibili zen abertzaletasunaren propaganda egiten. Honela zioen «Monzon»

izenburuaz eginiko artikulu batek *Euzkadi* egunkarian: «Monzon leguna da. Egia baño Monzonen esaerak zorrotzak dira iñor astintzeko baño ere sustarretik gauzak jakiteko. Nai badu bai. Ori da oraingoz beñipein gutxiña axola zaitena. Alderdi onak dira noski baño bada beste alderdi bat obia: euskera.» Monzonek, antza, utzi egin zion mitinetan agurra euskaraz egiteari, mintzaldia bera euskaraz egiten hasia zenez...

Errepublikan halako indarra hartu zuen nazionalismoak, non Espainiako eskuindarrek mitin bat antolatu zuten Urumea frontoian, Donostian, «Espainiatik banandu nahi zutenei aurre egiteko». Bertan esan zituen Jose Calvo Sotelo liderrak harako hitz gogoangarriak, «Lehenago onartuko dugu Espainia gorri bat, Espainia zatitu bat baino.» Halako giro gogorrean izan zen hautatua Telesforo Monzon diputatu Madrilgo Legebiltzarrerako, 1933an aurrena, eta 1936an gero. Lehenengo diputatualdian zuzenean eta buruz buru defendatu ahal izan zituen bere ideia abertzaleak Monzonek Calvo Sotelo jaunaren erasoari erantzunez. Izan ere, 1935eko azaroaren 28an, Calvo Sotelok lege-proposamen bat aurkeztu zuen Ganbaran, «Espainiaren batasunaren aurka» abertzaleek zeramaten kanpaina eragozteko neurri gogorak har zitezten. Eufemismo horren atzean alderdi abertzalea legez kanpo uztea eskatzen zuen, debatean argi gelditu zenez. Bere diskurtso sutsuaren ondoren sortu zen eztabaida iskanbilatsuan, Monzonek, Agirrek, Iruxok eta Horn-ek lañoki eta ahoan bilorik gabe aldarrikatu zuten Euskal Herriaren subiranotasuna. Hartan, Monzonek askotan erabiliko zuen adibidea ipini zien begi aurrean diputatu espainiarrei, Kuba eta

Filipinena. «Jaunok, Kuba galdu behar dugu, Filipinas galduko dugu, Puerto Rico galduko dugu, eman diezaiegun autonomia bertakoen bihotza irabazteko! Egun hartan Antonio Mauraren aurka izan ziren Ganbara honetako gorrotoak. Non dago orain Kuba, diputatu jaunok?» Protestak eta marmarrak ugaritu egin ziren, eta Monzonek honela jarraitu zuen: «Herri batek autonomia eskatzen dionean Espainiari, autonomia eman orde, Espainiak orain Gobernuak bidaliko diguna, antza, ematen du: persekuzioa. Alabaina herri baten askatasun oihua handitu egiten da. Noizbait, zuek gure herriari eskainiko diozuen autonomiak ez du asetuko. Euskal herritar guztiek autonomia baino zerbait gehiago eskatzen dutenean, orduan eman nahi izanen diozue zatitxoren bat, baina berandu izan liteke, Kuban izan zen bezalaxe.»



Lan politikoari buru-belarri emana, gutxi idatzi zuen Monzonek urte hauetan. Artikulu gisa inoiz argitaratu ez zuen hitzaldi mordoaren egile izan bazen ere, oso artikulu pare adierazgarria argitaratu zuen *El Día* egunkarian, editorial gisa: «El euskera en las clases altas del País». Berak aski ongi ezagutzen zuen egoera

baten berri eman eta kritika egin zuen haietan, handikien erdalkeria agerian utziz. Herri mailako ahalegin euskaltzaleari goi mailako gizartearen konpromisoa erantsi behar zitziola uste zuen Monzonek, hizkuntzak aurrera eginen bazuen. Ez ironiarik gabe, euskarak «bere karlistak» behar zituela zioen.

5



Politikaren alderdi burokratikoak

## AGIRREREN GOBERNUKO MINISTRO

1936an faxistak armetan altxa zirelarik, Telesforo Monzonek, Jose Mari Lasarte eta Manuel Iruxorekin batera, proklama bat egin zuen Donostian militarren mugimenduaren aurka, bere alderdiak hartuko zuen jarrera ofizialari zenbait astetako aurrea hartuz, eta alderdien artean osaturiko Gerrako Batzordeko partaide izan zen Gipuzkoan. Telesforo Monzon, jendaurreko lanaz gainera, alderdi barruko zereginetan aritua zen: Gipuzku Buru Batzarreko lehendakaria izana zen, eta Euzkadi Buru Batzarreko kidea. Jose Antonio Agirrek hurbildik ezagutzen zuen, adiskideak ziren umetatik gainera. Ez da harrigarria, beraz, ministro izendatu izana, Errepublikak Estatutua eman zuenean, euskaldunek beren kasa antola zezaten faxisten aurkako defentsa. Baina Monzon ez da Gobernuaren eratzean egin zen argazki historikoan ageri, Belgikan baitzegoen armak erosten 1936ko urriaren 7 hartan. Bere ministerioa, izan ere, Gobernazio edo Herri Zaintza sailekoa zen. Ertzaintza antolatu zuen, eta barne segurantzako arduraduna izan zen, noski. Gertakari deitoragarri batek ilundu zuen Monzonen agintaritzaren: 1937ko urtarrilaren 4an Junker 52



Senar-emazte, lankide, lagun





«Jainkoaren aurrean apalik...»

hegazkin alemaniarrek dorpeki jo zuten Bilbo bonbaka; amorratuta, bilbotarrek, milizianoek eta zibilek, nahaste batean, bertako faxistak preso zeuden Larrinagako espetxea eta komentuak hartu zituzten indarrez, ehun eta gehiago hildako eragiteko. Telesforo Monzonek geldiarazi zuen sarraskia, Larrinagan azalduz

Ertzaintzarekin. Ondorioz, Ajuriagerrak behin eta berriz eskatu zion Agirreri Monzon kargutik ken zezan, baina ez zuen halakorik egin.

Hondamendietan azaltzea izan zen hilabeteotako Monzonen patua, handik gutxira idatzi behar izan zuen telegrama hunkigarri hura: «Ez dago Gernikarik...»

## ERBESTEA

Beste zenbait buruzagi nazionalistarekin eta Gobernu Autonomoko gainerako lankideekin batera Santoñatik ebakuatua izan zen Telesforo Monzon, eta Iparraldean kokatu zen. Hemen erbesteratu eta errefuxiatuen koordinazio-lanetan jardun zuen, harik eta tropa naziak Frantzia hartu zuten arte. Orduan Gours izeneko kontzentrazio-eremuan

sartu zuten, beste milaka hego euskal herritarrekin batera. Poema luze batean deskribatu zuen ordukoa:

Sei mila euskaldun baziran  
erdaldunekin batean  
zorigaitz antza, neke ta gose zutela  
agerian.  
Begi larri, egonean,  
arantza-burdin atzean...  
Andra ta seme galdu zituzten gehienak  
bidean.



Estrainatuekin itzuli zenean, Durangon



*Alsina* izeneko itsasontzia hartu ahal izan zuten Marseillan estatu frantsesean babestuak zeuden zenbait buruzagi errepublikarrek Ameriketarako, eta hauen artean zen Telesforo Monzon ere. Itsasontziaren ibilia odisea txiki bat izan zen, Vichyren manupe zegoen Ipar Afrikan geldiarazia izan baitzen Casablanca-n eta Dakar-en, eta baita politikari espainiar batzuk atxilotuak ere. Noizbait, hamaika hilabeteren ondoren, Mexiko jo ahal izan zuten. Ameriketara eman zuten Monzonek bigarren mundu gerra, dekoratzaile-lanetan. Han idatzi zuen gerraondoan argitaratu zen lehen euskal liburua, izen adierazgarri honekin, *Urrundik*. Eta mamia ere halakoa izaki; herriminaren emaitza da, osorik, Telesforo Monzonen lehen liburua, *Tropikotik* poemak erakusten duen moduan:

Neri zer ajola,  
neguan eguzki ta bero ta lora?  
Nere mendi busti  
lañuaz yantzita, nai nituzke ikusi!  
Nik ez artzen poza  
neguan, ez badet euri ta aize t'otza...  
mendietan elur,  
auzoraño otsoa yetxiko dan bildur,  
ta bideetan loia,  
baserritik kalera nagan banoia...  
Zugaitzak, osto-utsik,  
ez al du, bidean, aitonaren antzik?  
Ene Negu maite...!  
zure magalera nik igesi arte,  
eguzki onen min  
osatu zaidazu Lañu-oroitzakin...

Bigarren mundu gerra amaitutakoan, Amerika utzi eta Parisa dator aurrena Monzon, hurrena Donibane-Lohizunera. Hogeita hamar urte luze emanen ditu Mende Berri etxean.



Aristokrataren makila, baserritarren txapela

## BERGARARRA LAPURTARTUA

Lehorreko eta ola-mendi arteko Bergara zaharrea hazia lilura batean murgiltzen du Donibane-Lohizune bezalako itsasbazterreko herri polit, arin eta kosmopolitak. Biak dira erreferentzia-puntu garrantzitsuak Monzonen idatzietan, eta bietako oroitzapen, gertakari eta istorioak erabiliko ditu, politikaz jarduteko nahiz bizitzaz dibagatzeko. Idatzita utzi zuen Lohizunen bizirik Bergara zuela ments, eta Bergaran zegoenetan berriz Lohizune zuela behar. Izan ote dezake saudaderik batek, bere herrian bertan? Hain urrun ote daude bata bestearen? Bai, noski, Euskal Herriak askatasunean bat egiten ez duen artean. Eta ia berrogei urte eman behar izan zituen Monzonek Bergaratik urrun. «Mendekoste jaiak hurbiltzen ari dirala, maiz eta biziago zait egun hauetan gure Bergara bururat etortzen...» Oroitzapen hutsa izanen da Bergara, halabeharrez, errefuxiatuarentzat, eta hizkera ere gero eta urrunagotzen ari zaio. Ez, alabaina, bestelakotzen: Urkizun ikasten hasi zenetik hil arteraino, Monzonen hizkerak bilakaera handi bat ukan zuen, euskalkitik baturainokoa. Eta horretan garrantzi berezia eduki zuen Lohizunen errotzeak.



Begararraren poza bergararren artean

Gero poliziak eramane  
zuen gorpua



XX. mende erdialdeko prosagile hegoaldetarren hizkera lehor, bizirik gabe eta aranakeriatik osoro urrunezinaren ondoan, Monzonena harrigarri egungoa eta modernoa egiten zaigu. Bergararra izaki, ez zen erabat gipuzkoar, ez guztiz bizkaitar, bazuen bietatik. Donibandarra izaki, lapurtarra zen mintzoz; liburuzalea izaki, klasikoa zen irakurtzez. Hangoa bezala hemengoa izate honek halako euskara berezi, aberats eta pre-batua lez post-batua ere bataia genezakeen eredu sortarazi zion euskalkien ñabardurak maisuki profitatuz. Hogeita hamar urte geroago, batua finkaturik zegoela, hartara egokitzeak ez zion batere gatzik kendu bere-berea zuen hizkera literario benetan zoragarriari.

Iparraldean txertatu ziren, beraz, Telesforo Monzon eta Maria Josefa Ganuza emaztea. Ez ordea eskuak antxumatuta Francoren erorketaren zain gelditzeko. Politikari-senak egoera gogorrenetan ere politika egitea posiblea dela, hau da, ideiak obratzea —gutxi ahal bada gutxi— sinistera ekarria zen, eta Francoren osteko alternatiba guztiei erne egon behar zela uste zuen. Azkenik, Euzkadiko Gobernuaren politika Espainiako Errepublikarenari sobera lotua zegoela zeritzola-eta, dimititu

egin zuen bere kargutik 1952an, Jose Maria Lasartek bezala. Ez zuen, alabaina, EAJ alderdia utzi, berak bere burua jeltkidetasunean ikusi zuen beti. Handik hiru urtera Parisen eginiko euskal mundu-biltzarrean hartu zuen esku, eta hartan ere, besteak beste, euskaraganako utzikeria salatu zuen.



Zurgin Zaharra antzezten



Jose Antonio Agirre lehendakaria hil zelarik, 1960an, Monzonen etxean eduki zuten gorpua. «Agirre Lehendakariarentzat ez dut, nik ere, sekulan ezkuturik izan. Jose Antonio zenarentzat ere ez. Biak joan zaizkit batean! Eta ez dakit ba: orain nere bidetik gauaz bakarrik nabilela, haren beharra sumatzen dut eta, joana baitzaigu, tarteka etortzen zait... holako beldur antzeko bat.» Galdua



Gerra osteko  
euskal lehen  
liburua



zuen zubia, interlokutorea. Eztabaida gordinak ukan zituen Jemeinekin eta Iruxorekin, Euskal Herriaren etorkizunaz. Monzonek frankismoaren amaiera bat ikusten zuen garai haietan; Espainiako sektore batzuetan zabaldua zegoen Alfonso XIII.aren semearen hautua, Don Juanena, estatuari halako zabaltze demokratiko bat ematearren. Aukera hori ezin huts eginikoa zela uste izan zuen Monzonek, halako «liluramendu monarkiko» batean, aurkarien hitzetan. Baina posibilismo honetan ere, gure herriaren etorkizuna zuen helburu: «Alderdiak, nere irudiko, Batzar Nagusi bat behar luke antolatu eta egin. Ahal bezela, ahal delarik eta ahal den tokian. Bainan egin. (...) Barnekoek eta kanpokoek, elgarren berri jakin beharra dugu. Zaharrek eta gazteek ere bai. Sekulan baino azkarrago datorren euskal abertzaletasun horri, denen artean behar diogu gaurko mintzaira eman. Eta gaurko bide berriak zabaldu.» Baina bere alderdia ez zegoen bere agintaritzatik kanpo lanean ari ziren gazteekin mintzatzeko prest.

## JELKIDEA ETAZALE

Agirrereren heriotzak urrundu egin zuen Monzon alderdiaren ofizialtasunetik. Monzon ez zen erbestean bizi, Euskal Herrian zegoen eta horren kontzientzia osoa zeukan. Hainbat hitzaldi eman zituen han-hemenka, Itsasun egin zen Iparraldeko lehen Aberri Egunean esku hartze zuzena ukan zuen, antzerkiak antolatzen hasia zen... Eta suari iztupa emateko, Hegoaldeko «Salbuespen Egoera» gero eta ugariagoetatik ihesi zetozen gazteak hasi ziren agertzen babes eske. Honela utzi digu apuntatuta Piarres Larzabalek: «1966ko ekaina zen. Francoren diktaduragatik, Hego Euskaditik asko eta asko jende heldu zen Iparrerat ihesi. Jende horiek hartzen gintuen gure etxean, ahal ginuen bezala. Bainan jokaera horrek ez zezaken iraun. Egun batez, Telesforo Monzon jauna etorri zitzaitan, erranez diru puska bat eskuratu zuela, Hegoko euskaldun iheslari horien laguntzeko. Orduan pentsatu ginuen behar ginukela bizileku bat muntatu, iheslari horien aloitzeko.» Hala sortu zuten, A. Arregirekin batera, Anai Artea erakundea, urte luzez errefuxiatuen arta ukanen zuena.

Errefuxiatu gazteek gerra garaiko gudariekiko lotura ikusi zuten Telesforo Monzonengan beste inorengan baino argiago. Honek, berriz, indarrean zetorren abertzaletasun berri eta euskaltzalea amets baten betetzea bezala hartu zuen. Geldikeria politikoaren etsai, gudari modernoei egin zien kasu, Jaurlaritzaren norabide ofizialari baino areago. «Ni jelkidea naiz. Beti izan naiz jelkide. Sekulan baino jelkideago naizela uste dut gainera. Euskal Herriak sortu duen gauzarik haundienetakoa da. Mundu osoa harriturik utzi genuen guk orduan. Gerra hasi eta berehalaxe Joxe Antonio Agirrek esandako hitz haiek gogoangarriak dira: “Kristau izatea herria maitatzea baldin bada, ni kristaua naiz; kristau izatea ezpataz kristautasuna sartzeta baldin bada, ni ez naiz kristaua”. Neretzat gauzarik haundienetakoa jelkidetasuna izan da. Egunen batean argituko dut hau. Gero, egia da, “etismoa” sortu da. Ni etismoarekin oso bat eginik bizi naiz. ETAko mutil horiek gudariak dira, jelkideak izan ziren bezala; ni ETAko gudariekin bat ez banintz, ez nintzateke jelkide izango.»



Burgoseko Epaiketa sonatua egin zelarik sei ETAkideri biziaren zigorra eskatuz, erakunde armatuak Donostiako Beihl kontsul alemaniarra bahitu zuen, gobernu espainiarra presionatzeko, eta Monzonek bere gain hartu zituen bitartekaritza lanak. Asko nabarmendu zen, eta gerora hainbat mehatxu, konfinamendu saio eta atzerriratze agindu ere hartu zituen. Hala egin behar izan zituen bere lehen gose-grebak, bihotza larriki ahulduko ziotenak.

Franco hil aginean zelarik, indar abertzaleen batasuna ukan zuen helburu Monzonek. Euskal Frontea eratu nahi zuen, Madrilen aurrean indar egin ahal izateko. «Borrokan gabiltz, bai ala ez? Zer borroka mota da gurea? Herri-Borroka ala Talde-Borroka? Guk ez dugu gaur Talde-Borrokarik egin nahi. Ez eta Alderi-Borrokarik ere. Guk Herri-Borroka egin nahi dugu. Eta egiazko Herri-Borrokarik ez dugu eginen, benetako Herri-Buruzagitarik ez izan artean.» Baina horretarako eratu zituen bilerek porrot egin zuten.

15



*Menditarrak antzesten*

## BERGARAN

Askatasunaren Ibilaldiaren ekitaldietan itzuli zen Telesforo Monzon Hego Euskal Herrira, 1977an, gobernu espainiarrak kartzelatik aterata Europan sakabanatuak zeuzkan zenbait ETAKiderekin. Berehala jo zuen, Jose Luis Elkoro bergararrak kudeaturiko Alkateen Mugimendua zela-eta, urte haietan berebiziko garrantzi politikoa hartua zuen sorterrira. «Berrogei urte hauetan ia gauero-gauero Bergara izan dut buruan. (...) Nik ezin dut Bergara kanpotik ikusi. Neretzat Bergara ez da herri bat, familia bat da. Bergarar batekin kanpoan topo egiten nuenean ez nuen herkide batekin topo egiten, neretzat anai bat zen. Bergara neretzat ez da harrizkoa, Bergara neretzat haragizkoa da, arimazkoa.»

Belaunaldi berriek ohore handian hartu zuten politikari zaharra, eta behialako jelkidea ezker abertzaleko mitinetan berriro zituen entzuleak liluratzeko dohainak. Herri Batasuneko sortzaileetarikoa izan zen, eta koalizio horretako buruzagi legez atxilotu zuen poliziak 1979an, eta Langraitzen espetxeratu, terrorismoaren apologia egin zuelakoan. Gose grebari ekin zion hemen, eta hiltzeko arriskuan egon zen: 74 urte zituen eta osasun makala. Espetxean zegoelarik diputatu hautatua izan zen Herri Batasunako ordezkari moduan, baina ez zuen inoiz hemizikloa zapaldu.



*Matalas antzeztu zuen taldea Monzon zuzendariarekin eta Larzabal egilearekin*

Harrigarritzko bizipoza eta jardun ahalmena azaldu zuen Monzonek bere bizitzaren azken urteetan. Mitinak, hitzaldiak, prentsaurrekoak, bidaiak, artikuluak... gazetako suhar berberarekin lotu zen aberrigintzari. Aurkari politikoek edozelako kritikak eta irainak egin zizkioten aro honetan: pertsonalista hutsa zela, protagonismoa behar zuela beti, fundamentalismoaren mesia zela... Hauen artean, noski, garai bateko lagunak izan ziren mingarrienak. Jesus Maria Leizaolak «burutik zegoela» idatzi zuen. Monzonek, behingoz, erantzun egin zuen. Ez ordea iraina ukatzeko, ohoretzat hartzeko baizik...

Bihotzeko gorabeherak zirela eta Baionako ospitalean ingresatu zuten Telesforo Monzon 1981eko martxoaren hasieran, eta bertan hil zen, 9an. «Gu, Monzonen adixkideak, gelditu gira orroitzapen eta ere eginbidez kargatuak. Itzaina joan zauku. Guri da, haren mezuari jarrikiz, berak ideki ildo aurrerat joaitea» idatzi zuen bere lagun Larzabalek. Handik bi egunera, Bergarara zeraman jarraigoa apurtu eta poliziak bahitu egin zuen bere zerraldoa. Tanketek zainduta egin zuen Bergarainoko azken bidaia.

Hil zelarik, *El País*-eko zuzendaria zen Cebrián jaunak Espainiako sozialisten iritzi sasi ofiziala eman zuen: «HB oker ulertze ideologiko erraldoi baten erakunde politikoa da, non norberak auzoa engainatu uste duen, eta Telesforo Monzon bezalako figura erretorikoek bakarrik eutsi zezaketen ezinegoneko orekan».

17



Antzerki-libretoetako bat

## POETA


Urteetan, poeta bezala izan da kontsideratua Telesforo Monzon, bere alderdi honi eman izan zaio garrantzia, idatzirik utzi zituenetan. Azken urteetako kantagintza albo batean utzita, bi liburutan biltzen da bere poemagintza: *Urrundik* (Mexico, 1945) eta *Gudarien Egiñak* (Lapurdi, 1947). Esan liteke gerra eta exilioa ezagutu ezean, nekez idatziko zukeela Monzonek poema-libururik: «Ongi-egina zor diet Euzkaditik jaurti nindutenei. Laga behar izan nionean baino, gaur ene aberria maiteago det. Horregatik diotsat idazti honi Urrundik... Herriz herri, ludi barrena ibiliaz, euskal gogoia biziago agertu zaidalako, ta bere beharra, berriz, sutu. Iparragirrerekin batera diot nik ere: Estranjeri aldean toki onak badira, baina bihotzak dio zoaz Euskal Herrira...!» Biak ere Lizardiren arrastoan doazen lanak dira bete-betean, baina haren bulkorik gabe, barne-urradurarik gabe.

Pierre Lafitteren ustean, «segur Eskual Herriak izan goresle munduan agertu denetik. Bainan ez du naski hainitz izanen Montzonen heinekorik. Beharbada hemen gaindi bilduegi kausituko dute irakurlek olerki mota hori, zeren elhe nasaia eta ahopaldi luzea, hats handia maite baitugu kobletan.»



Monzonek biziki maite zuen abestea, kanturako sortu zituen bere poemetako asko





Aita Onaindiak berriz olerkariaren figura laudatzen du gehiago, emaitza bera baino: «Herri bat zuen maite, bere sorterrria, Euskal Herria; anai arteko guda latzaren dirdaiak lausoturik, hautsi ta abarrikaturik, haizeak nahitara daraman hostoa iduri dardarazia, euskal mendiska ta zelaiak halabeharrez utzita munduan zehar, herri ta giza-mota arrotzak ezagutzera behartua, hor ibili zaigu olerkaria neke ta saminaren zartailupe izugarrian. Olerkari duzu, ta olerkariak pozean nahiz minean kantuari eman ohi dio, laguna hil dioten birigarroa antzo»

Jesus Maria Leizaolak azterketa luze bat eskaini zion *Gudarien Egiñak* liburuari, maila formalean. Bere garaiko kritikoen epeltasun adeitsua kritika gardenagoa bilakatuko zen belaunaldi gazteetan. Josu Landaren iritziz, «*Urrundik* liburuan azaltzen diren lanak herriminak eta nostalgiak jotako lanak ditugu. Oroimenik mikatzenak eragindako produkzioa. Aitzitik, errealtatetik urrundutako herrimina dugu Monzonena, eta euskaldun gehienek jasotako errealtatea hartuko dugu errealtate-eredu bezala. *Urrundik*-en orrialdeetan ageri diren poemetan zehar, gezurra dirudi askotan inongo gerrarik suertatu zenik ere. (...) Askotan, haurtzaroko oroimen hutsarekin konformatzen da eta Euskal Herriari buruzko deskribapenetan gerraurreko tradizioz bukolikoenari lotzen zaio argi bezain garbi.»

Ez zuen Telesforo Monzonek, oro har, uste handitan bere poemagintza. Aberrigintzari eginiko ekarpenak bezala zeuzkan, «Amari, seme baten abesti apala», bere hitzetan esatearren. Horrek, ordea, ez zion eragotzi besterena ikusten eta txalotzen. Gorazarrezko kritika bikainak idatzi zituen, inork baino lehen, Orixeren eta Salvatore Mitxelenaren lanei buruz.

## ANTZERKIGILE


Monzonen hain adiskide mina izan zen Piarres Larzabal ukan dugu, ezbairik gabe, antzerkigilerik ugariena. «Nik uste, nere biziko borrokak, nere herriaren alderako gar minbera, nere odolezko etorkizuna, dira nere burulanen iturri eta sugailu. Ez ditut maite amets hutsak. Funtsezko ametsetan, biziaz orratuetan, Jainkoa eta Eliza Ama gidari, deramat nere artzaingoa. Horra zer zimenduaren jabe dudan ateratu antzerki berri hau...» diosku Zokoako erretoreak bere antzerkietariko baten atarian. Bergararrak ez zeukan, bistan da, putz handirik behar gartsutasun berean su

hartzeko, eta esan genezake adiskidearen molde berean hasi zela bera ere, taularakoak egiten. Goi-asmorik gabeko antzerkia, ikusle onbera eta aseerraz bati zuzendua, Iparraldeko gizarte tradizionalenean kokaturiko istorioak erakusten zituena: halakoxea da, oro har, Monzonen antzerkigintza. Larzabalenagandik bereizten duen ezaugarri nagusia lirikotasuna da, «antzerki poetikoa» izatea, gertatuaren korapiloari baino kantuari, dantzari eta oro har eszenografiari garrantzi handiagoa ematen dionez. Telesforo Monzon, izan ere, zuzendari-lanetan ibili zen bai bere obretan, bai Larzabalenetan.



Urrundik-en herrimaren lirika, *Gudarien Egiñak*-en gerraren epika

Bere antzerki baten edizio modernoa



Antzerki-mota honek, jakina, ez zituen belaunaldi gazteen kezkak islatzen, ez edukietan eta ez forman. Gaztediak berritasuna behar zuen, Euskal Herri idilikoaren ideia apurtu nahian zebilen artean eta literaturan, eta egunerokotasun anker eta etsigarriari aurre egiteko gai ikusten zuen bere burua. Orduan Jarrai antzerki taldeko partaidea zen Xabier Letek honako hitz gogor eta aldi berean osasungarriak idatzi zituen 1968an Monzonen *Behorraren ostikoa* antzeztu zenean Donostian: «Noiz arte jarraitu behar dugu gure buruari kalte egiten? Noiz arte ebasioko ohitura eta itxura faltsuetara ihes egiten? Horiek al dira gure realidadearen egiak? Gainera, Euskal Herrian goi mailakoa kontsideratua dagoen teatro talde batek beste responsabilidade batzuk baditu. Forma berriak sortu, gaiak sakondu, teknika hobea egotz. Non dago hori guziaz? Berez gu baino gutxiago diran jendeen aurrean parregarri geratzera kondenatuak gaudela dirudi. (...) Bitartean, zai egon beharko gera, ia egun horietako batean behorraren ostikoak min emango digun toki batean harrapatzen gaitun, behin eta betirako esnatu gaitzen.»

Telesforo Monzonen bost antzerki jokatu izan ziren: *Zurgin Zaharra*, *Menditarrak*, *Gure behia hila da*, *Hazparneko anderea* eta *Eneko Bizkai* eta *Maria Lorka*.



Begarako elizaren ondoan Olaso jauregia

21



## PROSAGILE

Lizardiri bezala gertatu izan zaio Monzoni ere neurri batean, poetaren ospeak ezkutuan utzi izan du prosagilearen handia. Biak baitira handi, Lizardi eta Monzon, oraindik ere egiteko dagoen euskal prosaren historian. Prosan, hitz lauz, berba laxoan, nagikerian bezala, hilezkortasun-asmorik gabe, hurbileko helburuan, hainbat idazlek utzi dizkigute benetako maisu-lanak genero labur, zail, zehatzezin eta definigaitzean. Monzonen artikuluak, zer duda egin, onenen multzoan sartzen dira:

«Belar-gurdi bat ekartzeko asmoz ateratuak ginen etxetik. Eta horra: gurdia basan sartu. Gaua etorri zitzaigun eta, idiketara joan beharrean, hasi ginen predikatzen: bide hobek behar omen ziren munduan egin! Hogeitaz urte igaroak dira geroztik. Bideak ez dituzte antolatu. Eta gure belar-gurdia hantxe dago beti: lokatzetan sartua.»

Euskal Herriaren arbola, Francoren aulkiak, arrano beltza, pitxar hautsia, kanpai-jolearena... fabulaz, parabolaz, alegiaz mintzatzea maite zuen Monzonek. Baliabide metaforikoak ematen zizkion herriari, adibide xingle eta zorrotzak, batasuna, lurraldetasuna, naziotasuna aldarrikatzeko argudio gisa. Honetan ere idazleak larderia handiagoa

zuen politikoak baino, panfletoak zabaltzea baino eraginkorrago zeritzon ipuintxo bat kontatzeari, hurbilekoak ez ezik urrunagokoak ere bildu nahian. Bazuen gatza, hala ahoz nola idatziz, genero hori lantzeko. Hartuko zizun anekdota xume bat eta adibide orokor bat egingo zizun, hartuko zizun gertakari arrunt bat eta ondorio unibertsalak aterako zizkizun. Manipuladore bat zela esan izan zioten aurkari politikoek, mesprezuz. Zer besterik da ordea, poeta?

Alegiarako jaidura hau, egia da, egunerokotasunari ihes egitea izan liteke, edo errealitate bihurri eta anabastu bat aztertzeke adina tresna teorikoren jabe ez izanaren ondorioa, edo errealitateari buruz definitu nahi ezarena. Ez zen Telesforo Monzon politikan sartu berriko idazle bat. Ehundaka mitinetan eta Errepublikako legebiltzarrean trebatua zen buruz buruka Calvo Sotelo bezalako arrainekin idazten hasi zenerako, ez zen mutu geldituko argudio dialektikorik ezaz. Eta bestelako politikaz, ezkutuan eta alderdiaren aginduz pertsonalki egin beharrekoetan ere bazuen esperientziarik, besteak beste, gutxi egon ohi direlako alderdietan, oro har, Telesforo Monzon bezalako nortasun landu eta non-nola dakitenak. Miterrand-ekin elkarrizketatu zen behin.



Pariseko garagardotegi batean, Lehendakari hautatu bezperetan. Hizketatzetik itzuli zenean, Miterrand-ek eragin zion iritzia eskatu zioten. «Hori... tramankulu zahar bat duk!» izan zen bere erantzuna. Bazuen, beraz, errealitatearen eta jardun politikoaren berri, eta ez zizkizun galdera gordinenenak ere erantzuteke utziko. Idazterakoan fabularen hautua egina bazuen, beste arrazoi batzuegatik zen.

eta hainbatetan adierazi zuen ideiak ez direla deus haragirik gabe. Horregatik egin zuen antzerkia, eta ez saio filosofikoa edo historikoa, pertsonaiak ekartzeko gure begietara. Horrek, prosan, tesiak parabolen bidez aurkeztea dakar, mini-esketxak balira bezala. Poesiatik kantagintzara egin zuen bide. Eta genero honetara ere ez zen etorri efikazia hutsaren bila, Monzoni berez sortzen zitzaion

23



Bergarako Udaletxea, Monzonen hasiera politikan

Idazle egina eta aitortua zen, hala antzerkian nola poesian, prosari ekin zionean. Emanak zeuzkan, itxuraz, bere bulkoak eskatzen zizkion ixuriak. Ez zen beraz literato frustratu bat parabolak idazten zituen politikari hau. Genero honetarako zeukan zaletasunak, nik uste, haren intelektualkeria ezean du oinarri. Jakinduria kultura bilakatu ahal izan dutenen dohain garesti horrekin beti mesprezatu izan zuen pedanteria,

inguruarekiko eta pertsonetikiko atxikimendua. Hala utzi zizkigun, zirriborro guztiz ederretan, gure herriko hainbat pertsonaia xehe maitagarri: Beñat Elizanburu, Bordazuriko amatxi, Azkarate koronela, Bergarako Kaximira... Gure historia apalaren protagonista ilunak, gaur jadanik oroitzapen literario jatorrak ditugunak, idatzi zituen literatoaren estiloa bezain biziak eta gustagarriak.

Lapurdiko lursagarra eskuan eta Bergarako jaiak gogoan aurkeztu izan zigun bere burua, naturarekiko atxikimendua eta alderdi festazalea adostuz, bere kristautasunak —herrikoi, zabal eta patxadatsu— ezin ezkuta zezakeen hedonismo zuhur eta moderno batean. Eta honetan ere Lizardiren ondora dator Monzon, alderdi formalean hari zor dionaz gain —artikuluaren kentzea, aditz laguntzailea ekiditea, elementuen eta aroen antropomorfatzea, naturarekiko ekarria— biek ere jakin izan zutelako errealitate eta berehalakotasun politikoari gain hartzen, gizakortu egin zutelako beren jarduna luma laxo utzirik, barneak agintzen zienari bide emanaz, noiz norberaren ahuldadeak azaltzeko, noiz aitopen intimo bat egiteko, idazlearen deabrua nagusitzen zaiola politikoaren aingeruari. Eta politikoek oro har hain gorroto duten umoreak, ironia mehe eta inteligentea eginik, halako dimentsio hilezko bat ematen die bion lerro anitzi, alderdikeriak baino zabaltasunak gehiago, konsignen fedek baino biziaren beldurrak bortitzago eragiten zenez.

Adeitsua, arraia, arina dugu Monzonen artikulugintza, irakurle apal eta eskolatu gabeei mintzo balitz bezala. Ez du maite irakurritakoak aipatzea, ez du larderiaren printzipioa erabiltzen. Esperientzia pertsonaletatik,

berak bizitako gertakarietatik ateratzen ditu beti ondorioak, ez dizkigu proposatzen aurrez ikasitako definizioen hondakin gisa. Naturatik eta gizartetik hartzen du jakinduria Monzon prosagileak. Gizakiaren miseriak baino, nahiago du gizalegea eta elkartasuna adierazten dituzten adibideak proposatu. Ez ditu buru-haustek sobera maite, irakaspenak zeharbidez eta jostaketan ematen dizkigu. Azken finean, Monzon optimista handi bat genuen, eta baikortasun hori bere herritarrei txertatzen saiatu zen.

Arina zuen prosa, bai, baina ez sakontasunik gabea. Hautzaroko oroitzapen batek irakaspen zorrotza ematen dio gerlan dena ikasia behar zuen gobernariari. Anekdota barregarri batek hausnarketa mingarriak eragiten dizkio jaun errespetagarriari. Neskame baten irtenaldiak gogoetan murgiltzen du. Herri xehea miresten duten aristokraten artekoa genuen Telesforo Monzon, burgesiaren gainetik jauzi eginik —eta honek egunero pairatzen duen klase-borroka jasan behar izan gabe— nekazariekin eta arrantzaleekin, kontrabandistekin eta morroiekin liluratu zitzaigun. Eta hori, aristokrata populista edo herrizalearen irudia, oso ezaguna baldin bada munduan eta historian, ez da hain ohikoa Euskal Herrian eta euskaraz.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Koldo Mitxelena Kulturunea*
- *Auñamendi Editoriala*
- *Deia (Foto Pemán)*
- *Zeruko Argia*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.  
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1452-X (Obra osoa)  
84-457-1456-2

L.G.: BI - 2.686-99

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística